

Karmenak Markina-Xemein



Herriko koadrila bat, iazko Karmengo jaietan.

Markinako herriak badu beste gazte elkarte bat

Gazte Asanbladak ekintza ugari antolatu ditu jaietarako

Arantza Aldazabal / Markina-Xemein

AURTENGO Karmen jaietan, talde berri batek hartu du jandirik herritar guztiei ezaguna egiten zaien *mataderue*. Herriko talde berri hau Gazte Asanblada da.

Talde honek ez du denbora askorik, Aste Santu sasoiaren sortu zen ekimena baita. 58 lagunek osatzen dute, eta herri honetako gazteen ikusmira aldatzeko ahaleginak egiteko asmotan daude.

Herrian gazteek gabezia asko dituztela ikusirik sortu da talde hau. Beren ustetan, Markinan ez dago gazteei bideraturiko ekintza edo mugimendurik. Beraiek hau aldatzekotan batu dira; etorkizunerako egitasmo ugari betetzeko asmoa dute, baina bat-bateko asmo eta ahalegin guztiak Karmengo jai hauetara bideraturik daude.

Hasteko, bart gauean dantzari jarri gintuen rock kontzertua beren antolakuntzari esker izan zen. Gaur gaurerako ere beste rock kontzertu bat antolatu dute, *mataderuan*; iganderako, berriz, bertsolari gazteekin saio bat prestatu dute.

Laguntzarik gabe

Ekintza hauek aurrera eramanez gero, agian udaletxeak konfiantza keinu bat egingo

dio, eta orain arte ukatu dizkion laguntzak eskainiko dizkio.

Gazte Asanbladak oraingoz ez du lortu lokala edo toki propiorik, baina taldearen barnean badago egoera hau aldatuko den itxaropena.

Markinako herriak baditu

bere baitan mota askotako elkarteak, Xemein Astialdi taldea, Eup irratia, Margo gela Libre taldea...

Talde hauek guztiek gogor eta luze egin dute lan leku bat izateko, herriaren aurrean frogatuz beren balioa.

Gazte guztien topaleku

Gazte Asanbladak Karmengo jai hauek erabili ahal izango ditu bere helburuetariko batzuk betetzeko: markinar gazteei adierazi denek dutela leku bat beren artean.

Talde honen izaera guztiz zabal izango da, era guztietako pentsakerak dituzten gazteek lekua izango baitute bertan. Hau aberasgarritzat dute, baina betiere Euskal Herriaren aldeko ekintzak burutzeko asmoz.

Lan gogorra du talde honek, zeren ez da batere erraza talde berri bat sortzea helburu eta ekimen zehatz batzuekin eta hauek aurrera eramatea. Beti baitago zerbait ekintza eta ideia berriei ateak bat-batean zarratzen dizkiena. Eta herri honetan, zoritxarrez, nahi baino gehiago daude horrelakoak.

Horrela bada, Gazte Asanblada bat dugu herrian, harro egoteko modukoa da, eta gazteek tabernan egon besterik nahi ez dutelako ideia aldrebesa baztertzeko sasoia.

egitaraua

GAUR

10:30: Umeen txirrindulari lasterketa.

12:30: Trikitilariak, zelaian.

12:30: Paella txapelketa, zelaian.

14:00: Sari banaketa.

14:30: Herri bazkaria.

15:00: Plater tiroketa.

16:00: Play-Back.

17:00: Euskadiko Zesta punta txapelketako semifinaleak.

17:00: Mus txapelketa.

18:00: Markinako tinbale-roak.

23:00: ALAITZ eta MAIDER taldearekin erromeria.

BIHAR

12:00: Aureskua.

17:00: Euskadiko Zesta punta txapelketako finaleak.

19:30: Iparraldeko dantzak

23:00: Dantzaldia: FUERZA LATINA


00:00: Su artifizialak.

ETXANO Jatetxea

Betiko sukaldaritza tradizionala
Guztiz berriztuta

Erdotza, z/g - Tel.: 94.616.61.01 - MARKINA-XEMEIN

XURI



BURDINDEGIA
HORNIKUNTZAK


• MOVISTAR
• ESKU
ERREMINTAK
• GILTZEN KOPIAK
• ETA ABAR

Karmengo plaza, 21 • MARKINA-XEMEIN • Tel./ Faxa: 946 167 526



GAIMAZ, s.a. Eskabazioak
eta Baso-berritzea

Agustin Deuna, 3 behea • Tel: 94 616 76 11 • Fax: 94 616 76 11
MARKINA-XEMEIN



MENDI-ONDO
Zerrategia, S.L.

Unamunzaga auzoa, 19
Tel.: 94 616 77 81

Mugikorra: 908 31 83 52 (Javier)
48277 ETXEBARRIA (Bizkaia)

Alerze egurrarekin kaperio eta biga bereziak



MARKINA - XEMEINGO
UDALA

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!!

La Amistad TABERNA

Jaietan giro jatorra

Okerra, 10 Tel.: 94 616 60 89 MARKINA-XEMEIN

EGVR LVR

MARKA GUZTIEN SALMENTAK ETA KONPONKETAK



Karmengo Plaza, 21 behea Tel: 94 616 76 32

Markina-Xemein



Maquinaria Agrícola
ETXEITA, S.A.



Gudari, 4
48340 ZORNOTZA (Bizkaia)
Tel.: 94 673 04 71 / 94 673 00 00
Faxa: 94 673 42 71


JAI-ALAI taberna

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Okerra kalea, 14 - Tel.: 94 616 77 95 - MARKINA-XEMEIN

ATEUN

Tel.: 94 616 76 69
Mugikorra: 689 587706
Artibai, 32 beh.
48270 MARKINA-XEMEIN



HARDALTEGIA